

Inguraldeko Lehendakaritzaren azaroaren 15eko 0416/2023 zenbakidun Ebazpenarena laburpenaren bidez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdiaren esparruan kontrataziorako laguntzak emateko deialdia onartzen da (2023ko maiatzaren 24ko EHAA).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpen bat argitaratzen da, zeinaren testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daitekeen (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

Lehenengoa.- Onuradunak

Inoren kontura diharduten langileekin kontratuak hitzartzen dituzten pertsona fisikoak nahiz juridikoak (dena delakoa forma juridikoa) izango dira laguntza hauen onuradunak. Edozein kasutan ere, lan egoitza eta ekonomia jarduera Barakaldon izan behar dute.

Ez dute diru-laguntza hauen onuradun izaterik:

- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulura bildutako zirkunstantzietako batean erorita dauden enpresa nahiz erakunde eskatzaileek.
- Herri administrazioek eta sozietate publikoek ez ezik, horietako edozeinen mendeko nahiz horiei loturiko erakundeek ere.

Nortasun juridiko gabeko erakunde bat baldin bada eskatzailea, identifikazio fiskaleko zenbaki bat izan beharko du, eta, kontrakoa erakusten ez den bitartean, Kode Zibileko 393 artikuluan ezarritakoa emango da ontzat, erakundeko partaideei dagozkien zenbatekoei dagokienez.

Bigarrena.- Xedea

Deialdi honen xedea da Barakaldoko Udalak, Inguralde erakunde autonomoaren bitartez, enpresa eta erakundeei dirulaguntzak emateko prozedura arautzea, besteren konturako langileekin lan-kontratuak formalizatzen laguntzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2022ko ekitaldirako enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdiaren esparruan (2023ko maiatzaren 24ko EHAA).

Laguntza horiek norgehiagoka prozeduraren bidez emango dira.

Kontratazioek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Pertsona horrek langabezian egon beharko du, eta Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa izena emanda eta altan egon beharko du kontratua hasi aurreko egunean, eta ezin da egon alta emanda langile gisa Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean, ez eta Langile Autonomoen Araubide Berezian ere.

- Gainera, kontratatuko den pertsonak Barakaldon erroldatuta egon behar du kontratua hasi aurreko egunean.

- Ez da dirulaguntzarik emango enpresaburuarekin edo enpresa-kontrola dutenekin, zuzendaritza-karguak dituztenekin edo sozietate-forma juridikoa duten enpresetako administrazio-organotako kideekin odolkidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailarainoko ahaidetasuna duten ezkontideak, ondorengoak edo gainerako senideak kontratatzen direnean.

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente. Dokumentuak egiaztatzeko URLa (barneko dokumentazioa izan ezik) / URL para verificar documentos (excepto documentación interna): https://www.barakaldo.eus/OficinaVirtualBarakaldo/verificarCove.do			
Sinatzailea / Firmado por	DAVID SOLLÁ VARELA (Inguraldeko Erakunde Autonomoko Benetako Presidentea /presidente Efectivo Del Organismo Autónomo De Inguralde)		
EKS(Egiaztatzeko Kode Segurua) CSV(Código Seguro de Verificación)	40db6858-25a6-44a4-b170-887b916cf785	Eguna eta ordua Fecha y Hora	27/11/2023 12:06:49
Erakundea/Organismo	psf.izenpe.com	Orrialdea/Página	1/4
 40db6858-25a6-44a4-b170-887b916cf785			

. – Kontratuak mugagabeak izango dira, lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak, lanaldiaren % 50 gutxienez, bai eta artisten eta ikuskizun publikoetako teknikarien eta laguntzaileen iraupen jakinekoak ere. Azken horien gutxieneko iraupena 3 hilabetekoa izango da, eta gutxienez lanaldi erdia izango da.

.- Kontratu mugagabeek gutxienez 12 hilabetez iraun behar dute.

– Kontratazioek enplegu-sorrera garbia ekarri beharko dute berekin, diruz lagunduko den kontratuaren xede den pertsona lanean hasi aurreko 6 hilabeteetan enpresan dagoen batez besteko plantilla osoaren gainean.

- Diruz lagundu ahal izango dira 2022ko abuztuaren 16tik eta 2023ko maiatzaren 31era bitartean formalizatzen diren kontratazioak, egun biak barne.

- Ez da diruz lagunduko enpresa berak langile bera kontratatzea, baldin eta aurreko deialdietan diruz lagundu bada.

- Ez da dirulaguntza bat baino gehiago emango pertsona bera kontratatzeagatik, nahiz eta eskaera hainbat enpresak egin.

Hirugarrena.- Oinarri arautzaileak

Laguntzen oinarri arautzaileak, 2022ko urriaren 27ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko 205. zenbakian argitaratuak.

Laugarrena.- Zenbatekoa

Deialdi honetarako aurreikusitako gehieneko zenbatekoa hirurehun eta hamalau mila hirurehun eta lau euro eta hirurogeita hamabi zentimokoa da (314.304,72 €), 00100 24120 4710100 partidaren kargura.

Laguntza ordainketa bakar batean ordainduko da, enpresa onuradunak laguntza bete duela justifikatu ondoren.

Laguntza 8.000 eurokoa izango da urtean lanaldi osoko kontratu mugagabe bakoitzeko. Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, dirulaguntza lan egindako lanaldiarekiko proportzionala izango da.

Azken zenbatekoak, kasu horretan, ezin izango du gainditu kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen % 75, enpresa kontratatzailearen kontura Gizarte Segurantzari kontzeptu guztiengatik egindako kotizazioa barne.

Ekitaldi publikoetako artista eta langile tekniko eta osagarrientzako iraupen mugatuko eta lanaldi osoko hiru hileko lan-kontratu bakoitzeko, 3.000 euroko laguntza; lanaldi osoko sei hileko edo gehiagoko lan-kontratu bakoitzeko, 6.000 eurokoa. Denbora partzialeko kontratuen edo hiru eta sei hilabete bitarteko kasuan, dirulaguntza lanaldiaren edo lan egindako denboraren proportzionala izango da.

Azken zenbatekoak, kasu horretan, ezin izango du gainditu kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen % 75, enpresa kontratatzailearen kontura Gizarte Segurantzari kontzeptu guztiengatik egindako kotizazioa barne.

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente. Dokumentuak egiaztatzeko URLa (barneko dokumentazioa izan ezik) / URL para verificar documentos (excepto documentación interna): https://www.barakaldo.eus/OficinaVirtualBarakaldo/verificarCove.do			
Sinatzailea / Firmado por	DAVID SOLLA VARELA (Inguraldeko Erakunde Autonomoko Benetako Presidentea /presidente Efectivo Del Organismo Autónomo De Inguralde)		
EKS(Egiaztatzeko Kode Segurua) CSV(Código Seguro de Verificación)	40db6858-25a6-44a4-b170-887b916cf785	Eguna eta ordua Fecha y Hora	27/11/2023 12:06:49
Erakundea/Organismo	psf.izenpe.com	Orrialdea/Página	2/4
			
40db6858-25a6-44a4-b170-887b916cf785			

Kontratatutako pertsonak honako kolektibo hauetako batekoak badira: DSBEren titular edo onuradun diren pertsonak, 35 urtetik beherako pertsonak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo beste enplegu-zerbitzu publiko batzuetan enplegu-eskatzaille gisa izena emanda egon diren langabeak eta alta-egoeran daudenak, kontratazioaren aurreko 540 egunetan, baldin eta aldi horretan gutxienez 360 egun eman badituzte langabezian, eta 55 urtetik gorako langabeak badira:

laguntzaren zenbatekoa 10.000 eurokoa izango da lanaldi osoko kontratu mugagabe bakoitzeko; eta 7.500 eurokoa, berriz, ekitaldi publikoetako artisten eta langile tekniko eta laguntzaileen lanaldi osoko eta iraupen mugatuko kontratu bakoitzeko, baldin eta sei hilabete edo gehiagokoak bada. Denbora partzialeko kontratuen edo hiru eta sei hilabete bitartekoen kasuan, dirulaguntza lanaldiaren edo lan egindako denboraren proportzionala izango da.

Kontratatutako pertsonak talde horietako batekoa izan beharko du kontratazioaren data baino lehen.

Kasu horretan, azken zenbatekoak ezingo du gainditu kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen % 100, kontzeptu guztiengatik Gizarte Segurantzako kotizazioa barne, enpresaren kontura.

Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, dirulaguntza lanaldiaren eta/edo lan egindako denboraren proportzionala izango da.

Adierazitako dirulaguntzen zenbateko guztiak % 10 gehituko dira kontratuak emakumeekin egiten direnean. Dirulaguntzaren azken zenbatekoak, igoera horiek aplikatzean, ezingo du gainditu enpresa kontratatzailearen kontura kontratatutako pertsonen soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzako % 100.

Bosgarrena.- Eskabidea egiteko epea eta tokia

Eskabideak aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 22an 09:00etan hasiko da, eta 2024ko otsailaren 29ko 14: 00etan amaituko da. Barakaldoko Udalaren Egoitza Elektronikoa (<https://www.barakaldo.eus/OficinaVirtualBarakaldo/>) dagoen erregistro elektronikoen bidez egin beharko da, baldin eta Administrazioarekiko harremanak bitarteko elektronikoen bidez izatera behartuta dagoen subjektua bada.

Behartutako subjektua ez bada, bi bide hauetako bat aukeratu ahal izango du:

- Barakaldoko Udalaren egoitza elektronikoa:

<https://www.barakaldo.eus/OficinaVirtualBarakaldo/>; horretarako, ziurtagiri elektronikoa eduki beharko du.

- Inguralde Udal Erakunde Autonomoaren sarrera-erregistroa (Aldapa kalea, 3 A, Barakaldo).

Kontratu beharreko pertsona bakoitzeko eskabide bat aurkeztu beharko da, eta eskabidearekin batera eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da. Dirulaguntzaren eskabidean, diruz lagundu beharreko kontratuaren lanaldia adierazi beharko da.

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente. Dokumentuak egiaztatzeko URLa (barneko dokumentazioa izan ezik) / URL para verificar documentos (excepto documentación interna): https://www.barakaldo.eus/OficinaVirtualBarakaldo/verificarCove.do			
Sinatzailea / Firmado por	DAVID SOLLA VARELA (Inguraldeko Erakunde Autonomoko Benetako Presidentea /presidente Efectivo Del Organismo Autónomo De Inguralde)		
EKS(Egiaztatzeko Kode Segurua) CSV(Código Seguro de Verificación)	40db6858-25a6-44a4-b170-887b916cf785	Eguna eta ordua Fecha y Hora	27/11/2023 12:06:49
Erakundea/Organismo	psf.izenpe.com	Orrialdea/Página	3/4
 40db6858-25a6-44a4-b170-887b916cf785			

Seigarrena.- Beste Datuak

Laguntzak emateko irizpideak: Deialdiaren seigarren puntuan ezarritakoak

Jardunbidea: Nogehiagokoa.

Aurkeztu beharreko agiriak: Deialdiaren zazpigarren puntuan ezarritakoak.

Laguntzak emateko organo eskuduna: Inguralde Erakunde Autonomoko

Lehendakaritza

Ebazpena emateko epea: Eskabideak aurkezteko epea amaitutako egunetik zenbatutako sei hileko epean.

Lehendakaria
David Solla Varela

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente. <i>Dokumentuak egiaztatze URLa (barneko dokumentazioa izan ezik) / URL para verificar documentos (excepto documentación interna):</i> https://www.barakaldo.eus/OficinaVirtualBarakaldo/verificarCove.do			
Sinatzailea / Firmado por	DAVID SOLLA VARELA (Inguraldeko Erakunde Autonomoko Benetako Presidentea /presidente Efectivo Del Organismo Autónomo De Inguralde)		
EKS(Egiaztatze Kode Segurua) CSV(Código Seguro de Verificación)	40db6858-25a6-44a4-b170-887b916cf785	Eguna eta ordua Fecha y Hora	27/11/2023 12:06:49
Erakundea/Organismo	psf.izenpe.com	Orrialdea/Página	4/4
			
40db6858-25a6-44a4-b170-887b916cf785			